

EUSKAL POESIA ARROTZEN IKUSPEGIZ

Urri dira gure poesiaren izpiak arrotzen ikuspegiz. Horietatik bi erakusgarri emango ditut, Lope de Vega eta George Borrow-en idazkien arabera.

Borrox Bibliaren hedatzaileak **The Bible in Spain** liburuaren 37. kapitulua euskarari eskainia du, besteak beste, euskara ikastea zein zaila den agertzen du, esanaz, Satan zazpi urtez bizi izan zela Bizkaian, eta alde beharra izan zuela gure hizkuntza ulertu ezin eta berea ezin ulertaraziz. Vinsoek jaso zuenez, eta Behe Nafarroa aldean esan ohi denez, deabrua zen euskara ikasi ezin zuena. Hala ere, Hondarribiko Santa Barbaran 1610. urtean egin zen aklarre hartan euskaraz mintzo omen zen, lekukoak ziotenez.

Borrow berak, dirudienez, zertxobait ikasi omen zuen 1838. urtean Euskal Herriari ibili zenetik. Albizturko seme eta Madriden mediku zen Oteizari San Lukasen Ebangelioa itzultzea agindu zion eta berberak egindako zuzenketaz argitaratu, liburuari aitortzen duenez. Oroi, morroi euskaldun bat eduki zuela, zeinekin ez zen hain ongi konpontzen. Bera leinu oneko semea izateaz ezin ba errepublikano gisako demokrata harengandik kontseilurik hartu. Ez zekien nonbait euskaldunek jatorriz aitonen semetzat zutela beren burua eta nornahiri kontseilua emateko eskubi-dea beren ustez. Pundu honetan, ulert ezina ez zetorren hizkuntzaren aldetik, giza nobleziaren aldetik baizik.

Iritzi hoiak neurtzen dute guganako

ikuspegia, baina hara nolabaiteko zirrara eragin zion koplaren bertsoa, liburu horretan jasoa eta ondotik jartzen duen oharra:

*Itsasoa urak aundi,
Eztu ondorik ageri
Pasako nintzake ni andik
Maitea ikusteagatik*



The Basques are a singing rather than a poetical people. Euskaldun herria kantari gehiago da poeta baino.

Morroiaren erakuspena noski, tira, beti ikasten da zerbait.

Honako bertso soilok, poesi ederraren aldetik, ez nuke esango hain bitxiak dire-

nik Arrasateko kanta zahar haiek, Etxepareren poemak edo Ziburuko Etxeberri eta Gazteluzarren bertsoaketa gogoratzen baditugu. Aurreko euskaldunak idaztean ziren ahulak eta ondare aberatsa ukatu ziguten. Behar bada, herri kantaz iritsi zaizkigunak agergerri murrutuak besterik ez ditugu, baina hor da gure altxorra, edo altxorraren ageria.

Lope de Vega antzezgile gaztelarrak ordea, 1615. urtean, Ana Frantziako erregina eta Isabel printzesaren aurkezpenarako idatzi zuen **Los ramilletes de Madrid** zeritzan antzerkian, maitasunaren agergerri, honako bertso hau ezarri zuen:

*Zure begi ederrok
Ene laztana,
Katibaturik nabe,
Librea nintzana,*

Ez da ustegabekorik bertso honetan. Lopek bazekien horren edukiaz eta poesiaren atseginak eraman zuen bere obran sartzera. Oroi Lope de Vegaren garai hartan euskaldunik bazela erregeren Korteko mailarik gorenetan eta horietakoren batek irakatsia ezartzeaz, aldi berean goimailako euskaldunei beren entzumenera eskaintza eman nahi zien. Dena dela, hara hor izpi politori.



Juan San Martin

IRAGARKIAK

OLEARSO LIBURUDENDA

San Pedro kalea
HONDARRIBIA

55 urte egunkariak eta
liburuak saltzen

ANTXIÑA TABERNA - JATETXEA



Arma plaza, 2
Tel.: 64.18.80
HONDARRIBIA

Zorionak!!



txantxangorri

San Pedro kalea, 27
Tel. 64.21.02
HONDARRIBIA

Taberna behean,
ohizko denda lehen pisuan